

MIKROKREDENTZIALA: NIRE LANA ERRAZTU TEKNOLOGIA LAGUN

Dokumentu-karga murriztea, interoperabilitatea, automatizazioa eta dokumentuen tratamendu adimenduna

Helburu orokorra:

Administrazio publikoko langileak trebatzea, dokumentazio-eskaerak eta eskuzko kudeaketa arindu ditzaten. Horretarako, datuen interoperabilitatea, balidazio-automatismoak eta dokumentu digitalen kudeaketa adimenduna erabiliko dira.

Ikastaroaren egitaraua (20 ordu)

1. Modulua: Zergatik eskatzen dugu oraindik hainbeste dokumentu?

- Administrazio Publikoko dokumentazio-kulturaren azterketa kritikoa
- Dokumentuen eskuzko kudeaketaren kostu ezkutuak.
- Administrazio-errazteari buruzko kasu arrakastatsuak.

2. Modulua: Interoperabilitatea eta datu-bitartekaritza (4 h)

- Zer da interoperabilitatea? Esparru juridikoa eta teknikoa.
- Datu-bitartekaritzako plataformak: zer diren eta nola baliatu.
- Lantegi praktikoa: Gehiago eskatu behar ez diren dokumentuak identifikatzea.

3. Modulua: Jasotako dokumentuen tratamendu adimenduna (4 h)

- OCRrako sarrera (Karaktereen Ezagutza Optikoa).
- PDF, irudi eta inprimakietatik datuak automatikoki erauztea.
- Lantegi praktikoa: OCR tresnak erabiltzea eta datu-erauzketa.

4. Modulua: Balidazioen eta zeregin errepikakorren automatizazioa (4 h)

- Prozesuen robotizaziorako sarrera (RPA).
- Dokumentu-kudeaketan automatizatu daitezkeen atazak.
- Lantegi praktikoa: Balidazio-fluxu automatizatu baten diseinua.

5. Modulua: Gizakiak egindako gainbegiratzea, AAK lagunduta (3 h)

- Adimen Artifiziala (AA) dokumentu-berrikusketa azkartzeko.
- Sailkapen automatikoa, akatsen detekzioa eta alertak.
- Lantegi praktikoa: Gainbegiratze lagunduaren simulazioa.

6. Modulua: Prozesuen birdiseinua: paper gutxiago, datu gehiago (3 h)

- Prozedurak nola birdiseinatu dokumentu-karga arintzeko.
- Datuetan oinarritutako diseinua (eta ez dokumentuetan).
- Ikastaro amaiera: Nire unitatean ezartzeko ekintza-plana.